



Iñeroko aldizkingi edergariduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—:	VI Urtea	1924'ko	Oriñla	65 Zenbakia	:—:
-----	----------	---------	--------	-------------	-----

NI MUJKA TA URESTARAZU'TAR MATEO JAUN

Irakasle, Eñoma'ko Aita Santuaren Latziñaldari-nagusia,
Jaunari ta Aita Santuari eskerak Iruña'ko Obispo
(Gotzaia) eta., eta.

Gure Eliz-buru'ko Dean eta Apaizteri guziz agurgariari; Oñeaga'ko Lenenkari ta Apaizteri agurgariari, Apaiz-buru, Apaiz-Aita, Oñdekari eta beste Apaiz guzioi; ta Eliz-Bañutiko Praile-Monja goretsei ta siñistun guzioi.

Esan nizuten, seme maiteok, pozak gañez egiñik nengoala. Zuurtzeriari kalterik egiten ez dion txoratasun onak arturik nago. Pozez anpoturik, bafengo atsegiñaren ardoak eragiñik nabil, Nik iñoiz gaurgero ezin aztu izango dudan Otsailaren 24-gařen egunean egin ziñidaten afera biotzezkoa ikusi ezkeroz.

O AÑA ZERUK ARGIA'ren zenbaki berezi ontan Iruaa'ko gure Gotzai (Obispo) befi agurgariaren lenengo Artzai-eskutitz bikain, eder, mamitsua ematen dizuegu, berarekin itzegiñik, aren esanez euskeraztu-ta. Gure irakurle guzioi atsegin izango zaizuetela etsirik gaude; napañai gure Obispoaren itzak diralako; Gipuzkoañai zuen seme argi onenak diralako, ta euskaldun guzioi, Obispo euskaldun batek lenengoz euskeraz ematen dizkigunak diralako.

Ura gizataldea bildu zan izen aundiko uri ontara. Kaleak, zelai, baranda ta leyoak ere bete-beteak bai zeuden. Ufe gofizko azken gabeko katea izan balitz baño edefago ematen zuan; ba-zirudin ur-bideak ausirik dijoan ubaldea edo basoko aizeak dakarten ufutiko ari-soñu (arpa-soñu) otzanen xurmufua; beren Agintaria inguratuz ta goratuz datozen ezin konta-alako gudar (soldaduen) otsa zan.

Ubalde antzeko gizatalde artan ikusi nituen, biotza xamurturik, napafakin baturik nere ezin esan ala adixkide gipuzkoar, arabar eta baita bizkaitafak ere. An bildu ziran bi Apaiz ta apaiz-gai lefo luze-luzeak *sobrepeliz*¹ ez jantzirik; Eliz-bafuti ontako Apaiz-buruak, uriko Prale mota guziak eta A. A. Frantziskafak Eliz-Buru'ko Apaizteri guziz agurgafia buru zutela.

An agertu ziran Lendakari ta Ordezkarik legezkoak; Aldundi (Diputazio) goi-goikoa bere mazadunakin; Udal edo Uri-gizonak beren albienteakin eta atabalariekin; Auzitegiko Buru Perillan jaun goretsia; Salatariaren ordezkoa, Probintzi ontako Epailea, Nikolas Mangado, urikoa; Gobernuaren Ordezkarik Manuel Sanchez-Ocaña Gudari-Agintari goretsia, uri ontako soldadu mota guzitakoen ordezkoi sail aundiekin; an agiri zan Frantzisko Irigoyen Napafoko Ikastetxe-Buru'ko Zuzendari argia ta orko Irakasleen ordezi Jose Berasain Sekretarioa; *Escuela Normal*¹eko Irakasleen ordezi Luis Amorena jauna, Irakastoki ontako Zuzendari dana, eta Mariano Saez Sekretarioa; *Federación Católico-Social-Navarra*¹ren ordezi bere lendakari Esteban Dean jaun aomen aundikoa ta beste lagun batzuek; bai-ta ere an ziran lenengo Irakaskuntzaren Ikuslari-buru Eladio Garzia jauna; Euriko Olaiz, Guardia Civil¹ en Burua, Alderdi ontako *Coronel*¹ a uri-Gobernadore dana; Berenguer Jeneralaren ordezi Luis Agife Bilbao; *Cámara de Comercio*¹aren izenean Fermin Goñi Etxebefi, beren lendakari jauna, ta Beloso, Sarasa ta Gortari ta beste gogoratzan etzaigun jaunen bat; an ziran gañera Ofeaga'ko Apaizteri guziz agurgafiaren izenean Fermin Goikoetxea beren Aufendaria eta Agapito Martinez ango eskubideduna; ba ziran oraindik beste jaun asko uriko alkartasun eta batza legezko guzietatik; guzien izenaz ezin gintezke oroitu.

Iruña'ko aundizki ta ordezkoi guzioekin batera arkitzen ziran Gipuzkoa'ko Aldunditik Elortza, Eizagife, Balmaseda eta Aginaga jaunak; Burgo de Osma'ko Eliz-Buruko Apaizteriaren batzordezi, Jose Maria Mujika eta Jose Maria Sertucha ango eskubidedun jaunak; Gazteiz (Bitoria'ko) Chantrea Karlos Lorea G. A. eta Demetrio Ripalda ango Barkalari jaun G. A.; Gipuzkoa ta Araba'ko Maria'tafen Alkartasunetako Ordezkoak, Idiazabal eta Beasain'dafen izenean etofiak eta beste asko adiskide beren etoferaz goratu nindutenak.

Guzia eta guziak Obispo apal onengatik goratu ziran eta Elizaganako begiramendu ta maitetasunezko agefaldi afigafi ofek uri osoa eliza aundi batean biurtu zuan Jaungoikozko edertasunez beteaz.

Bagiñekin, alegia, napañen elizkoitasuna ezaguturik, ardiak Artzaiarekin, ikasleak Irakaslearekin, Apaizak Apezpikuarekin arkitu orduko poztuko zirala; baño gure Zeruratzale on-on *eskatu edo uste degun baño ugariago beti egiten duenak* (1) 24-gafenean ain pozaldi beteak eman zizkigun! Nere asmorik eta usterik edefenak aietantxe finkatzen ditut; alegia guzien aufetik

(1) Ad Ephes. III, 20.



IRUÑA'KO GOTZAI

Mujika'tar Mateo Irakasle Jaun
guziz Agurgariari,

Maitasunezko ta begiramenduzko eskeintza

ZERUKO ARGIA'k.

Jaungoiko guzaldunaren laguntzan etsirik, ořela alik obekiena ta ařetarik (ardurarik) aundienaz Nere gain dauzkaten eginkizun astun-astunak betetzeko.

Argatik Jaunari esker apal ta gartsuak eta uri ospatu ontako Nere sařerara etoři nai izan ziřutenai esker xamur eta biotzenekoak eman ondorean, lenengo Artzai-eskutitz ontan ez dizuet Obispo (Gotzaiaren) *almen*, *esku-bideaz*, edo *nagusitasunaz* itzegingo; zuřfagoa bai deritzait «Irakasle ta Jaun» ba-naiz ere. Jesukristo'k bere ikasleai bezala guzioi ořak garbitzea, au da, guzioi laguntzea; baita ere oroitzea *eskubidea* eman zaitela ez ortaz anpotzeko, baizik besteren onean erabiltzeko; *Ut utatur, non gloriatur potestate* (1). Onen ikaskizun gorenaren argitasunean nai dut itzezin Nere lanbide ta eginkizun aundi ta astun Nere gain datozkitenaz. I. Napařo ta Iruřa'ren edesti (historiazko) aunditasunaz. II. Bere siřispenaren iraupen eta garai-aldiaz. III. Gizarteko gora-beraz. IV. Aldi ontako lařitasunaz.

Napařo ta Iruřa'ren edesti (historiazko) aunditasunaz

Gure eřege maite XIII-gařen Alfonso (Jainkoak bekigunak) Iruřa'ko Alki aipaturako izentatu ta Jesukristoren Ordezkarı XI-gařen Pio'k egiztatu ninduan, aren izentatzea onek ontzat artuz. Orduntxe ikusi nuen Napařoaren bikaintasun guzia Nere txikitasunaren gařera zetofela eta Nere bařen guzia biotz-ikarak artu zuan.

Zuen Napařoa goratu zuten eřegen artean bai daude Santxo Garzes. Konde ta Eřege onek aomen aundia irabazi zuan, elur eta malkořen erditik eraman zituenen bidez Iruřa'ri su egiten zioten arabeak garaıtu zituelako. Ekin zien ustekabeen eta oso ta ařunt ondatu zituen. Bere garaipenen sariz *Arista* izena eman zitzaion, au da *azkařa*, *buru-mozlea*. *Santxo Garzes Aundiena*. Onek geitu zituan bere eskupeko luřaldeak. Kalatařazor'ko guda-aldi ain aipatuan izan zan eta bidez irabaziak zituan *Gain-gařeko* edo *Grande* ta *Erburu* (emperadorearen) izenak. *Pedro Santxez*; Onek irabazi zien arabei Alkoraz'ko matxinada oroigafia ta eskuratu zuan Hueska. *Alonso Santxez*, *Matxinada-zalea* (Batallador). Onek kendu zizkien moroei Zaragoza, Tudela, Calatayud, Daroca, Mequinenza, eta Bayona. *Santxo Garzes*, *Jakintsua*, etsaien ekiřaldi askori gogor egin bidenabafean, ařeta aundiaz bere eřeinoaren zoriona bilatu zuana. *VII-gařen Santxo, Azkařa*. Au da Navas de Tolosa'ko matxinada goragafian—1212'an—(Miramamolın) Moamed Ben Yacub'en egoitza aberats ziriko (sedazkoari) ekin ziona. Amar miřa giza-beltz lantza sendodunak galtzairuzko kate ikaragafia zeukaten inguruan, geritzu (babesean) gordetzeko. Bařa bere besoz autsi zituan burni-kate lodi, gizatalde ařen aufetik zeudenak. Frantzi'ko Eřege Luis santuari bi gurutzedun taldetan lagun egin zion *Teobaldo II-gařena* ere bai...

Zuenak ziran geroago Ezpeleta-Galdiano'tar Jose eta Arizmendi'ar Jose Eřege-ordeko ta Capitan Jeneralak. Biak ziran eřiak zuzentzeko jakinduriz eta zuurtzeriz ondo ornituak. Zuenak dira gudalari ta Capitan bikařen artean *aipamen aundiko* Lastefa. Jerusalem'go Eřege Godofredo de Buillon beraren eskutik Ama-Birjiřaren irudi orain Artajona'n agur egiten zai-

(1) Pontificale Romanun.

ona artu izan zuan, bere ezpata zorotzaz ain garaitze ta azkartasun aundiak moruen kaltez Uri Santuan egin zitualako.

Redin eta Cruzat'ar Tiburzio jauna, Biguezal'go Baron'a. Aipatua bere *etxealdean* bere ausardi-aldi afigafiaz eta iskilotako egintza ain gora-gafiaz, Portugal'en, Italia'n, Beko Lufaldetan, Afrika ta Amerikan, baño aipatuago izan zan oraindik Españaiko Kaputxino bezala Anaitegian beti izan zuan bere apaltasun eta zuzenbide ikasgafiaz. Aipatua izan zan gañera Inozenzio Aita Santuak El Cairo'ko Misioaren ondoren Panaman'goa eman ziolako.

Antonio de Leiva Pavia'ren zaintzailea, Milanésado'ko Governadore ta Ascoli'ko Prinzipe zana, Viena afean turkoen garailari. Gudari-buru (General) ain argia zalako V Karlos Efege ta Emperadorea bere menpean jafi zitzaion suizkilaritako, Carlos de Gante'ren izenpean bere burua izkutatuz.

Elio'tar Frantzisko Xabier (1767) garailari azpiratu-eziña Oran, Ceuta eta Rosellon'en. Onek kendu zioten Ingelesai Montevideo 1805'an eta Plata'ko Probintzien Efege-ufengo izan zan; beronek garaitu zuan Suchet Frantzi'tafen kaltezeko Gefatean.

Jakinduriaren zeru argi ta zelaian argitasun aundi-edera dariela agiri dira *Azpilkueta'r Martin*, (*Irakasle Napara*). Eroma'ko Barkalari nagusia, Salamanca ta Coimbra'ko Irakasle ta Aita Santuen eta Efegeen on-esalea zan. Napafoaren eta Eliza guziaren kaldoña da. Eroma'ko Barkalari-salaren batzafetara joaten etzanean, bere lagun jakintsu argiak esaten zuten *bururik gabeko* batzafea egin zutela; ain gizon afigafia zan. *Ripalda Aita* (*Juan Martinez*.) Madrid, Salamanca ta Paris'ko Ikastetxe-burutan Teologiaren irakasle izen gainganekoa. Lur guzian zabaldu diran liburu sakonen egilea da au (1). *Estella*'ko *Diego* Aita, II-gařen Felipe aundiaren iztun, konseju-emaile eta teologoa. Latinezko liburu batzuen eta onako onbidezko auen egilea izan zan: «De la vanidad del mundo» «El tratado de las cien meditaciones del amor de Dios» «La vida y excelencias de San Juan Evangelista». *Morete* ta *Mendi'tar Jose Aita*.—Aita Moret— onek «*De obsidione Fontirabiae*» izena duan liburuaz landara idatzi zuan «*Congresiones histórico-apologéticas de las antigüedades de Navarra*» izen aundikoa. Liburu ontaz dio obekiena idazten dutenetako batek (2): «Esku-agiri oherenetako asko artu ditu Napafoak bere seme onetatik, baño Moret baño berago gelditzen dira.» *Mendoza'tar Juan Hurtado* XVII-gařen eunkiko idazle españaia, «El buen placer trobado» gutun (liburuaz) ezagutzen dana. Jesus'en Lagundiko *Espartza* ta *Artieda'r Martin*, *Miguel Jose Maceda* ta *Idiaquez'tar Frantzisko Aitak*; azkeneko au Granada de Ega'ko Dukeen lenen-semea zan. Auetatik lenengoak teolojiazko liburu bat eman zuan eta beste biak izkuntza ta filosofiazko gutun batzuek argitaratu zituzten. *Joakin Ignacio Mencos eta Manso de*

(1) De Ente supernaturali disputationum, tomos duos.

Appendix ad disputationes de Ente supernaturali, adversus articulos olim a Pio V et Gregorio XIII et novissime ab Urbano VIII. P. M. damnatos.

Brevem expositionem litterae Magistri Sententiarum, cum quaestionibus quae circa ipsam moveri possunt.

Tractatus theologici et scholastici, de virtutibus Fide, Spe et Charitate.

Discurso de la elección del sucesor del Pontificado en vida del Pontífice.—il zan 1652' gařen urtean Madrid'en.

(2) Arturo Campion.

Zuñiga, Gendulain'go Kondea, Efegeen Ministroa, olerki askoren egilea izan zan au eta bat azkar-bikaña ba-du saritua «El cerco de Zamora por el Rey D. Sancho II.» *Ultzuñun'dar Migel jauna*, Lege-gizon aipamentsua, bereak dira «Del régimen del mundo» eta «Del daño causado» gutunak. *Madoz'tar Pascual*, idazle trebea; beste lan askoren artean argitaratu zuan «Diccionario geográfico estadístico histórico de España y sus posesiones de Ultramar.» *Navarro Villoslada'tar Frantzisko*, Napafoko Walter Scott deitua izan zan. Berea da «Amaya o los vascos en el siglo VIII.» *Ituñalde Suñar Iuan* jauna, idazle argi ta Napafoko Edeslaria (historiador). Napafoko Erti-zafen Batzordearen eragile ta bizi-emale izan zan, eta San Fernando'ren Jakintsu tar-tekoa, buruaz amaika lan txoragafi ta gogoragafi egin zuana.

Baita ere zuen artekoak dira *Antxieta'r Migel jauna*. Onen lan edefak Napafo'ko elizetan, Burgos'ko Eliz-buruan eta Aragon'go etxealdetan dir-dir dagite. Zuenak dira eresi-zeruan artizafen antzean argi ematen duten asko. *Zabaltza'r Damaso* jauna, pianolaria «España'ko Chopin» esaten zitzaiona. *Eslava'r Hilarion* jauna; da bere izena deraman «Método de Solfeo»'ren egilea; baita jostari eresizko «las treguas de Tolemaida» «El solitario y D. Pedro el Cruel» eta *Meza* ta beste mota askotako eresi ugarien egilea ere. Onek asmatu zuan soñu otzan gozagafian arinkerigabeko eresia ta beraz Rossini'k esan al izan zuan: «España'ko Irakasle onen lanak afigafiak dira—dio:—onek idazten (eskribitzen) ditu aboskiak (voces) Frantzi'an eta Alemania'n beste inork egiten ez dakien eran eta Cherubini'ren ondoren egin izan ez den eran.» *Arieta'r Emilio*, Madrid'ko Eresi-zaintzako (Conservatorio) zuzendaria. Onek ere ba-ditu eresi-lan maitekor, España osoan oso ezagunak. *Goritti'ar Felipe* jauna ereslari trebe-trebea, eresi-asmatzale etofi aundikoa, Paris'ko eresi-txapelketa askotan garai ateria, lenengo sariak irabaziz ala ere. *Gaya're'tar Julian* goi-otslari (tenore), berdin gabea. Lur guzia afituz lur alde guzietan bere abots zolia ta bafengo eresgura bizia txalo artean erakutsi zuan.—*Sarasate'tar Pablo*, Magoa, biolin-larien Efegea, *lufeko lenengo biolinlaria*. Au da bere txifibika (violin) arekin non-nai beti ta guziak, bai Europa'n, bai Amerika'n, baita lur guzian ere gaindu zituana. Oni esaten zitzaion *España'r*, *Napar* eta *Iruña'r* aundia.

Napafoaren eta Iruña'ren kaldor-loreak izan ziran gañera Olaso'tar Eustakio ta Seminario'tar Frantzisko jaunak, Kristau gartsuak, ongile aundi ta Jaungoikoaren efukitasunaz beteak, Federiko Ozanam'en antz-antzekoak. Biak izan dira Iruña'n efukitasunezko Alkartasun on-egile aundien sortzaileak. Baño Napafoaren kaldor-lore ta lora-ontzi dira batez ere bere bi Zaintzaile Fermin eta Xabier'tar Frantzisko. Oien izen lufak eman ez dezaken bezalako argitasunaz beteak, kristauaren biotzean atsegintasun bizi-biziak sortzen ditu. Jakinduririk oberenaren irakasle ziralako, anima zeruratzeko jakin-bidea erakutsi ziguten. Anima-zale oien *gogoari* lufa txiki egiten zitzaien Kristo'rentzat irabazteko.—Gizon on uts-uts auek lufeko gatzia izan ziran; on-bidea Salbatzailearen iturietan edan zuten uso txuri-txuri auek, gero lufa bafena bafeatu zuten. Auek dira Napafoaren onaren bila beti dabiltzan bere aita biotz efukitsuak. ¡*Fermin santua!* Saturnino eta Honesto santuen ikaslea, Iruña'ko Obispo izan zan. Galia'n kristauen kontra suturik zegoan gofotoari aurpegia eman zion, Jesukristo'ren maitasunez bere odola

ixurtzeko gogo biziagoa zeukelako biotzean suturik. Ara joanik, Angers, Angjou, Normandia, Beauvais, Picardia ta Beko Lufaldetan erakutsi zuan Ebanjelioa ta Amiens'ko xtegieta bere bizia siñismenagatik ematera etofri zan. *Xabier'tar Frantzisko deuna!* Au da Xabere, Azpilkueta eta Jasso'taŕen garaipenak beregandurik Paris'en Irakasle egin zana, ta ortik Kristo'ren *berebiziko* Misiolari itzuli zana. Oni etzioten atzerazten, ez ubalde, itxaso, mendi edo basamortuetako legarte edo aretegi sutuak, ezta gizonaren gofoto edo deabruen amofuak ere, ez goikoak, ez beikoak, ez beinenekoak ere. *Gizon-gaindikoa* ta Apostolu berdin gabea zan; naiz ibili nekatua, auldua, barurik, burni ziztatzalez estalia, otzetik gordetzekorik gabe, ala ere aurpegia Jainkoaren maitasun suaz bizturik dijoa ogeita amar mila legua bide, geienean oñutsean eta bere oin santuak odolez beterik. Onek bakafrik befogei ta ama-bi eŕeino Kristo'ren siñismenera dakartza, ezin zenbatu ala eliza goratzen ditu, miloi bat eta befeun mila siñismen gabe batayatzan ditu ta Kristo'ri zeruko izar eta itxasoko legar pilak aña anima dakarzkio (1). *¡Xabier aundia!* Lastozko eya batean iltzen da, sukafak kiskalirik, bakar-bakafrik, ezergabe, janari apur bat limosnaz eskatuz, lufeko guziak utzirik (2) baño aingeruz ongi inguraturik, Ama-Birjiñak atsegiñez beterik, Irutasun (Trinitate) guziz santuak gozaturik, Jesukristo'k guziz maite duala ta bere betiko zorionaz ongi etsia. *¡Xabier'tar Frantzisko!* au da azkenean bere zorionez, Jesukristo bera, ura neke ta naigabe aundietan arkitzean, aren neke naigabetan lagun eta kideko egiten zitzaioia. Apostolu aundi au istilutā, izardietan eta ilzorian zebilenean Xabier'ko Gaztelu'ko aren irudi agurgafia afagafizko izardia zeriola jartzen zan eta.

Ene guziz maiteak, ofenbeste Efege, efege-ordeko, Capitan nagusi, gudalari, jakintsu, idazle ta ereslari... ofenbeste ongile, napaŕ ta iruindar salaz oroitzean eta oiei darien dirdirtasunak izafen argia ere ezeztutzen dutela ikustean, itzultzen ditut nere begiak gero neregana ta bafen-bafengo ots batek esaten dit nere txikartasuna agiri-agirian eta Neroni ongi itxikia dagoala (3). Baño Xabier'tar Frantzisko santuaren irudi bikaiñaren ondora urbildu naizenean, nere bafenbez edo animaz iruditu zait Lur-Santuetara joan naizen bost aldietan Ejipto'ko *piramide'*aren aldean gorputzez bezin txikia naizela. Baño Xabier'tar Frantzisko santuaren eskubidea, lufean bere besoak eta animak zuan bezin aundia ta eragilea dalako, *uste det* laxter eta Jaungoikoak onez bere Gaztelu ta Jauretxe agurgafian, belauniko lufean, besoak gurutz-antzean eta biotza damutua ta apal-apal dutela egingo dioten otoitz apala entzungo didala. *Uste dut* bere laguntza ta esku zabalaz Napaŕo goretsiari semerik aundiena eman zion eliz-bafuti au Artzai, Irakasle ta Aitari dagokionez nere eginkizun lafiak bete al izango ditudala.

Eztet Nere balioaz ezer oberik uste izaten Iruña'ko Gotzai (Obispo) izan diranen aldean agertzean.

Onbide ta jakindurizko kate ortan ufe gofi ta dir-dirtsuzko eraztunak bezalaxe dira Fermin Martiri santua; Liliolo, Toledo'ko irugafen Eliz-Batzaŕe aundian egon zana; Garzia Ramirez'tafa, bere anai Aragon eta Napafo'ko efege VI-gafen Santxo Ramirez'i nekabidea (penitenzia) agirian egin

(1) XV-gaŕen Gregorio'k: Peperit Christo filios super stellas caeli et arenas maris.

(2) Laskibar'tar Jose M.^a Aitak.

(3) Humiliatio tua in medio tui. (Mich. 6, 14.)

erazi ziona; eliza batzuen ondasunak eta artu-bideak bereganatu zitualako beartu zuan; Artajona'r Lope, Paris'ko Pedro limosnari aundia: onek iritxi zuan Amiens'ko Obispoagandik Eliz-buruan agurtzen dan Fermin santuaren gorpuzki (reliquia); Napafoa'ko Remijio: onek, aintzat eta geiagotako zeukan beartsuen aita izatea VII-gafen Santxo Efegearen seme izatea baño; Garces Jakintsua; Ximenez'tar Pedro Gazolaz'ko elizaren ondasunen zaintzale azkaña. Onena da «Legimus in veteri testamento» araudia. Or agintzen ditu Kanonigoen bizieraz eta elizan egin bear diran *zeremoniaz* ta ixiltasunaz arifagizko legeak. Lopez-Legaria'r Migel iruñ-semea. Garai artan etzan bere afeta (ardurari) izkututzen zitzaion lufeko edo animen egin-biderik, ain langile azkar eta begiratu zan. Barbazano'tar Arnaldo, lengo onen antz- antzekoa; Santxez'tar Miguel, Asiain'goa, *guziak beartsuen aitarren* izenaz ezagutzen zutena, Obispotako *per inspirationem*, goi-argiz aukeratua; Egia-Etxabari'ar Nikolas Lizaña (Estella'ko) semea, agramontear eta Beaumonteafen arteko etsai taldetako pakatzalea; Juan Queipo de Llano, gizon asko jakina, irakasle jakintsua, Napafo'ko Efege-ordeko ta Capitan nagusiena; Ama-Birjiñaren maitale bizia zan eta Andre-Maria'ren zortziu-fenaren ordain-sari edefa jafi zuan. Sandoval'dar Prudencio Anaia, V Karlos'en edeskailari (cronista) ta Iruña'ko eliz-bafutiko edeslari (histori-gilea.) Toribio de Mier elizaren askatasunaren laguntzalea, Kapitan nagusiena ta Napafo'ko Efege-ordekoa. Irigoyen-Dutari'tar Juan Lorentzo, Efazu'ko semea, beartsuen aita eta Apaizgaitegien goratzalea; Uriz-Legasa'r Joakin Xabier, Apaizgaitegetako sarpideak geitu zituana. Andriani-Escofet'ar Sebero Leonardo, elizaren askatasun eta eskualdeen zaitzale sutsua; onengatik bost urtez bestefiturik egon zan; Ruiz Cabal-Rodriguez'tar Antonio aipamen gozoa utzi zuana ta Lopez-Mendoza'tar Jose Anaia, bere azken aldiko urtetan Artzobispo izan baño Iruña'ko eliz-bafutian egon naiago izan zuana.

Iruña'ko obispoen ufe malezko kate oni orain erasten zaio beste nola-naiko burnizkoa ta Nik eztut kemen argi-argia bear lengo mala oiei beste au edergafi aundiakin etzaiela erantsiko igafitzeko. Baña, egia garbi esateko aitortu bear dizuet zerbait poztutzen gaituala basoko txiolari bikain ufesiñol eta lur-txoriaren ondoan, lufeko moxofoak ere txir-txirka ariz, berea egiten dutela izate guziaren edertasuna osotuz; afi ederki landutakoen ondoan etxe ta dofe azkafak beren afikoxkofak izaten difutela; ta Nere Aufekoen onbide ta jakinduriaren utsaz oien ordezeko afigafi bat arkitu detela, indar sendo, ez etsitzeko indaño ta gogoa ematen ditena ala ere; au da Napafoari, Iruña'ri ta ta zuek guzioi dizutedan maitetasuna, Nere seme maite-maiteak.

Napafoaren aizpa biotzezkoa dan Guipuzkoa'ko semea, zuen lege, oitura ta usuarioak ezagutzen ditudana, ta zuen izaneraren zalea naiz. Zuek bezala España abefi aundiaren et Napafo zuen abefi txikiaren maitalea; zuen bi izkuntza, erdera ta euskera ezagutzen ditudana; pozik nago, Nere biotza zuenaren arabera dabilkitelako: Baita ere poztutzen nau oartzeak zuen iritzi bereziak dakartziten zuen egunari edefak, zuen aufekoen siñismen eta erlijioaganako maitetasunaz nor baño nor geiago izan ba-dabiltze, bereala dabiltzela Napafoa ta Iruña'ganako maitetasunean ere ta ofen maite-gura biziaz deitu nai izan dirala: *El Diario de Navarra, El Pensamiento Navarro, La Tradición Navarra, La Voz de Navarra, El Pueblo Navarro*. Ni ere gogo

ta biotz guziz poztutzen naiz zuen Obispoa, Iruña'ko Obispoa deitzeaz; Nik ere, zuenganako ongi-naia eta Obispotako igortzitzean esan zizkidaten: *Sit in eo puritas dilectionis* itzak eragiñik, Nere alegin guziak jafi bear ditut zuek biotzez, egiaz eta bear bezala maitatzen.

¿Nola ez maitatu, nere semeok, zuen onez nekatzeko ta Nere odola ere ixurtzeko gertu ba-nago? Krisostomo'tar Juan santuak lenengo aldiz erbes-tetik itzultzean bere efiari esaten zizkion itz afigafiak nerek egin eta zuei esateko ausardia ere ba-dut eta: «iñork eztu onelako semerik, iñork onelako artalderik, iñork onen zelai loreturik: landu beafik ere ez dut, lotan nagola dakartza galburuak; ez dut lan egin beafik, ni lo nagoanean ere ardiak garaitzen dute otsoa. ¿Nola deituko ote zaituet? Ardiak edo artzaiak, ontzi-zuzendariak, gudari (soldaduak) edo gudari-buruak? Izen auk guziak dagozkitzuela esan dezaket. Zuen zuzentasunari begiratu ezkeror, ardiak deitzen zaituet; zuen ernatasunari begiratur, artzaiak; zuen zuurtzeriari begiratu ezkeror, ontzi-zuzendariak; eta zuen azkartasun eta iraupenari begiratu ezkeror, guziok deituko zaituet gudari ta gudari-nagusiak.» (1)

Baño aitaren antzeko maitetasun bereziaz zuek maitatzeagatik ez naiz abefi aundi España'ri zor diogunetik iñolaz basa egiten. «La Ciencia Tomista» —*Marzo-Abril*'goan (2), esaten zanaz uste degu oker bat aundia dala bai *politica*'ri dagokionaz ere, españaf ona izateko alderdi bakoitzari ta batez ere norberak bereari gofotua izatea ta gutxiago nai izatea beafezkoa dala uste izatea; oso beste aldera da, Abefi aundiaren maitetasunik ez diteke asmatu, abefi txikiaren maitetasun xamufá gabe, ta eziñezkoa uste izatea da beste guzia, eziñezkoa eskatuko litzaiokeen bezala, iñori eskatuko ba-litzaio, norberak jaiotefi edo sortefia bere gurasoen etxea baño geiago maitatzea.

Bi maitetasun oiek, España abefi aundiaren eta Napafo abefi txikiarena iñoiz berezigabe, baturik iraun-aztea, batez bestea geituz, guziok batza onean, pake egiazko ta elkarganako begiramenduaz bizitzea, au Artzai onaren asmo nagusia izan bear da, *sit in eo sinceritas pacis*; auxa izan da Nere auekben egin-bideen ardatza ta España ta Napafoaren aunditasunera-ko au da naita-naiezkua, *sine qua non*.

Befiz ere lengo ofi ekiñez nai nizkizukete esan, nere seme oiei, X-gaŕen Pio Santuak Mantua'ko *Alkateari* uri ta eliz-bafuti artako Obispotako aukeratua izan zanean esan zizkion itz gogoragafi aiek: «Zuen Obispo befi, ezer gabeak, baño bere artaldearen maitetasunaz aberats danak, ez dakar zuen animak zeruratzeko ta zuetaz adiskide ta anaiezko etxealde bat egiteko asmoa besterik.»

Nere egin-bear aundia napaŕen siñismen biziaren auean

Aundia, guziz aundia da, nere eliztar maiteak, siñismenaren ondasuna; eta aundi ta guztiz aundia baita ere gure sinismenaren irabazia.

Jesukristo'k erakutsiaren egi-pila ta zeruko aberastasuna da berez. Guri dagokigunaz siñispena da Jaungoikoak erakutsi ta Eliz-Ama katolikoak gizonari adirazten dizkion egiak gure ezaguera (adimenaz) ongi-ongi artzea;

(1) Jesus'en Lagundiko I. Ogararen itzulpenetik.

(2) Vidal Gómara, 266 ofialdean; artíkulo-egilea Kataluña'z mintzo da,

eta onbide bezala, siñismena da zeruko gauzetaz ongi pensatzeko (uste izateko) jainkozko oitura.

Izate guziaren egile, zeru ta lufak ba-dala adirazten duten Jaungoiko afek; izatea duten guzietan bere ufats eta aztarnak ezañirik utzi dituan afek, egi-uts, nagusitasun bera danak, ez gezufetsi (gezufa egitzat artu) ta ez gezufa sartu ezin dezakenak, gizonari itzegin nai izan dio «askotan eta alde askotara. Gure gurasoei Profeten bitartez itzegin zien eta azkenean bere Seme, gauza guzien jauñ-gai, garai guzietako egunak beretzat egin dizkionaren bidez, guri.» (1)

Eta Jaungoikoak itzegin ba-digu, zer egin bear du gizonak?... Ontzat artu, edefetsi bere Aitaren egia ta gogoa: siñetsi, siñismen bizi, kartsu, oso, apal eta esker onez beteaz artu Jaunaren ontarte (mesede) izugafia.

Noe ta bere etxekoen zoriona, beste guzien ugolde ta galtzean ezin esan alakoa izan ba-zan, ez dugu zorion txikiagoa Jaungoikoaren efukitasun utsaz (2) siñisgabeen gezufezko ta gaiztakerizko ustelkerietatik sinismen egiazkora ta Eliza katolikora deituak izan geranak. Ongi esan dezakegu, seme maiteak, siñispenarekin etofi zaizkigula beste ondasun guziak. (3)

Jainkozko argitasun ofek ematean, gizonak bere begiak *zeruan jartzen ditu* eta gauza guzien kaldofean dakus Jaungoikoa, asnase bizigafi baten bidez izatea emanez; jakinduri aundiz guziei eutsiz eta guziak zuzenduz, bere nagusitasun goienaz legeak emanez eta gauzen edertasun ezin agortua, bere gorapide besteri ezin eman zaionerako bilatuz. (4) Gizonak *itzultzen ditu bere begiak lufera* ta ikasten du betiko argiaren izpi bat dela gure ezaguerara; Aita beraren aur, efi guziekin lufean efi bakar bat egiteko gaudenak gerala: efidi guziekin etxealde azkafa egin eta betikoaren gozatzale, zorioneko aberian norbera bere gozotasunean izateko; gizonak bere ikasbideai begiratzien die eta bere siñismenaren indafak ematen dizkio afen gogoari azkar eta eroririk gabe ibilbiderik neufigabeenak bafena egatzeko egal sendo ta argitsuak. Onela arkitu dezake ikasgayik beafenezkoen erantzupena. Auek dira ¿Nor den Jaungoikoa? ¿Zer den lufa?... ¿Zer den gizona?... ¿Zer egin-bear daukan gizonak Jaungoikoarekiko? ¿Zer dan gure anima edo gogoa? ¿Zer egin-bear daukañun gure lagun-urko, projimoekiko?

Zartzaroak argaldutako soin dar-darituia bere jira-biratako duan makilaren eutsian besterik ez diteke makurtu. Bereala gizonaren gogoak ere, bere gain utzirik, ezpadio bere ezaguerari besterik eltzen, eztu gidari makal, efaz makurtuko litzaiokena besterik upatuko; bere ezaguerak siñismenari, makilik sendoenari bezala ezpadio eusten beintzat.

Siñismenak bere bafuko indafez ufuntzen du zalantza (ezta-baia), adimena sendotzen du ta bere sorpuru ain goitikoaz adimena aultzea galazten du; gure iruditu bildurtiak egiztatzen ditu, gure burua nasten duten gogorapen pilak bere argiak jotzean, iluntasun guziak kendurik uzten ditu.

Siñismen (fedearen) galda gabe, gau ilun-ilunean dabilen bidariaren antzekoa itzultzen da gizona.

(1) Ad Hebr. c. I. v. 1 eta ufen.

(2) Non volentis neque currentis, sed miserentis est Deus. Rom. IX, 16.

(3) Et venerunt mihi omnia bona pariter cum illa. Sap. 7. 11.

(4) Gloriam meam alteri non dabo. Isai. 42, 8.

Afunt itxu, argi ta ikusmen batere gabekoak bideko orma (pareta) eta beste edozein gauza jotzera ta oztopo ta anbildegietan erortzera bai-datoz, berealaxe siñismena gidari ez izan ezkeroz gizonak gogorapen berdiñik gabe bizi dira elkafen artean, gezurpean jartzen dituzte beren buruak eta beñere gañera ateratzen ez diran osiñean erortzen dira, era bat galtzera joateko.

Itxas-uin olatuak gogor jorik, ekaitzak arturik derabñilen ontzia, itxas ondafera botatzen dan elpide (aingurari) eskefak, itxas-erdian zugaitz bat bezin sendo gelditzen baita tinkaturik; bere onela gizonaren buru, asko gogorapenen uin-olatuak jotakoak ere siñismenean arkitzen du bere aingura. Onek eusten dio naita-naiezko ondamentitik ateratzeko ta kai bare paketsura irixteko, jainkozko sorpurua duen siñismenetik datorkion ziurtasunaz. Siñismenak jasotzen du gogoia egan zerurontz, eztio uzten lur ontako gaitzen zamapean erortzen; baizik zama arindu egiten dio geroko ondasunen uste sendoaz. (1)

Gizonak azkenean begiratzten ditu siñismenak bere zeruratzeko bidean dakarzkion ondasunak eta siñismen katolikoaz, Bataioaren bidez oneratua izan dala, afiturik oartzean; beroñen bidez bere pekatuetatik garbitua, etsaiaren mendetik ateria, Jaungoikoaren seme, Jesukristo'ren ikasle, Ama-Birjiña Maria'ren seme ordeko, Espiritu Santuaren jauretxe (templo), Eliz-Ama Santaren zati, ta zeruko ondore-gai egiña izan dala sumatzean, bere bafenean eta biotzean esker onezko eresi (kantu) bat asten du: Pablo Apostolu santuak Efeso'afen kartan ziona: *Onetsia (bedeinkatua) izan bedi Jaungoikoa; bere gogo-erabakiaren araura lendik semetzat autatu gaitu, bere ontasunaren aundia goratu dezagun.* (2) Baño, siñismenaren doaia aundi ta bikaña dan bezala, siñismenak erakutsi ta Elizak adirazten digun guzia siñistatuz siñismen ortaz bizitzen danean, gizonak ere merezimendu aundia du. (3)

Gizona, guzia ezagutu, ikasi ta aditu nai duan ezagueraz egiña dago; eta izatez goikoa gure gerezko ezaguera onen indafez ezin erditxi degu. Ofegatik alegia gure ezagumenari gogor egiten zaio *ikusten ez duana* ta aditzen ez duana siñistea. Argatik jakiña da gure adimenak siñisgai oiei dagokienetan, siñizmenazko egi-pil beren inguruan ilunbeta eta ezin-aditua arkitzean, ala ere ongi artu, eder-etsi ta adoratzten (agurtzen) ba'ditu Jaungoikoak erakutsiak, Jaunari onekin atsegin-bide aundi-aundia ematen diola; gizonak alderik bikañenaren eta nagusienaren, au da *bere adimenaren* eskeintza baliotsua egiten bai-dio. Onela dalako, Elizak il-zori lañian dagoan kristauari esateko, laguntzen dion Apaizaren agoan jafi ditu arako itz begiragafi ta pozgafiak: *Otoitz dagizugu, Jauna, zure mendeko onen animaz... Pekatu egin duala egia ba'da ere, ez Aita, ez Seme ta ez Espiritu Santua ez ditu ukatu, baizik siñistu du ta Jaungoikoaz ařeta iduki ta Jaungoiko gauza guziak egin dituana jauretsi (adoratu) du.* (4)

(1) Krisostomo'tar Juan S. IV, 5. Migne.

(2) Ephes. I-5. Benedictus Deus qui praedestinavit nos in adoptionem filiorum, secundum propositum voluntatis suae, in laudem gloriae gratiae suae.

(3) Justus ex fide vivit. Rom. I, 17.

(4) Commendamus tibi, Domine, animam famuli tui... Licet enim peccaverit, tamen Patrem et Filium eta Spiritum Sanctum non negavit; sed credidit, et zelum Dei in se habuit, et Deum qui fecit omnia, fideliter adoravit.

Oña ba, Iruña'ren eta Napafoaren gofengari lenengotako erakutsi bear ditugu, ez siñismenari afera ona kristauen lendabiziko egunetan egitea bakarik; ezta Honesto, Saturnino santu, Apostolu antzeko gizonaren eta Fermin santu aren ikasle Iruña'ko Añeneko Obispoaren predikaziora gogo onez jartzea ere; baizik mendez-mende oztu ez dan kemenaz, akitu ez dan zintzotasunaz, siñismenaren aberastasuna zaindu izatea; eta siñismen ofen arabera beren bizitza ta oiturak geienak zuzentzea; beti gertatu dan onen aldean zer dira batzuen utsegin aundiago edo txikiagoak eta gizon ilkor eta erorkoaren efu nekez utsegin dezaketanak?...

Argatik *Doctor Navarro* zanak aupakaldi on batean idatzi (eskribitu) al izan zuan: «Nik ikusi dituan edesti (historietan) ezta (eta ontaz Jainkoari eskefak eman bear dizkiote) gaurdaño napañen batek siñismen (fede) San Pedro'ren ikasle Saturnino'gandik artu zutena ukatu duala esaten duanik; Ezta ere juduen, moruen eta luterotañen sail galduetara aldatu danik, naiz aien eskupean jopu (katibu) erori, esku-erakutsiak eskeña izan eta miñaz bearturik arkitu.»

Siñismen biziaren zitu ta loraldia izan zan Napafo'ko Efegen elizkoitasuna; Jimenez Aritza, Leire'ren Laguntzale abaña; Il-gañen Gartzia Iñigez Fuenfrida'ko Andre Maria'ren Anaitegia'ren goratzalea; I Santxo Garzes Albelda'koa; I'ko Santxo, Usun'go elizan Pedro Santuaren bidez *frigelas* gaitz mindurik zeukanetik sendatu zana; I'ko Santxez'tar Pedro; onek, oso gaizki ta etsirik zegoalarik, Migel Goiaingeruaren bitartez osasuna eskatu zuan. «Aralarmendi guzia gora oñez eta bizkafean zofo-zaku bat arez beterik igo zan» in Excelsis'ko baseliza beñiro egiten ari ziranean, eta onela iritxi zuan osasuna (1).

Napafo'ko lufalde doatsu ontan siñismen bizi ofek sortutako zitu ta loretxorta dira ainbat Obispo, Apaiz, Prale ta Monja. Auek, bai predikatuz, elizekoak emanez, beren ongi-esan argiaz animak zuzenduz, eri eta beartsuei lagunduz eta batez ere beren onbide gain-gañoeken ikasbide on menderatzañeaz, garai guzietan *luñeko gatza*, Iruña'ko ta Napafo'ko argitasuna izan dira.

Siñismenak Napafoan beste zitu ta lore-txorta'rik ere eman du. Konbentu, Anaitegi-Aizpategiak, Alkartetxeak eta eliz-gizon-emakumeen Ikastetxeak, Eritegiak eta... betetzeko ari *biziak*,—Espiritu Santuaren egiazko jauretxeak diranak—demazkin *arobi* santu itzuli du. Garbitasun eta santutasunezko *lili* ezin-esanala elizaren lorategi loretura aldatzeko eman dituan gogoen mintegi biurtu du; ezin esan ala anai-aizpategitako, otoitzez, neka-bidez (penitentzitan) Jaunaren ezpata zofotza atzerazi ta askotan garaitzen dutenen *seaska* ta *ama* egin du.

Napafak Elizaren alde dezuten su ta indaia ere siñismen ofen zitu ta loraldia dira. Aldeoroko siñismenazko agertaldi (manifestación) aundietan, Elizaren kaltez, eta bere seme-alaba taldeen kaltetan gizon zuurtzeri gabeak jafi dituzten afixkuetan gure uri ta efietatik gañez egiñik ateratzen dira aiek.

«Navas de Tolosa'»ko garaipenaren eunurte-betetzeaz, «Ley de Asociaciones» zenaren kaltezko kristau-agefaldiaz eta Xabier'dar Frantzisko santuaren eunurteko jaietaz oroitzen danak... igafiko dio biotz-pozaz zeñen be-

(1) Arturo Campión,

giragafia dan efi katoliko au, erlijioaren ziztarako afigafiak eragiñik, milaka kristau, gizon bakafa balira bezela efi-burura bialtzen dituenen; mendietako durunda-otsak befitu, bere uri-efiak mugirazi eta Napafoko efi-buru aipamen aundiko onen mufu sendoak ere dardaraztean.

Eta izer egin-bide ta erantzun-beafa sortuko litzaiket nere efazkeriz siñismenaren argitasunak zuen animetan ilunduko ba'lira? Zuen siñismen eta erlijioaren garaipenak zeruko izañak bezin ugari ba'dira, erantzun-bear lafia izango litzake. Nerea, ezpanu etsai guzietatik zaituko ardura ta alegin guziaz. Sagaratu nindutenean esan zidaten; *Abundet in eo constantia fidei, siñispenaren iraupena ugaritu bekio*; eta ez gaude *ilunbetari argi a deitzeko* (1), ezta Ebanjelioaren kaltezko oitura ta ibilerak ontzat artzeko asmotan, *berez gaiztoa dana iñoiz ontzat artuz*.

Siñismenak, ogei mendez (eunkiz) kristautasunak iraun ondoren oraindik bai al du etsairik...? Bai, seme maiteak, eta bi motetakoak dira. Batzuek ez jakiñak, eta besteak, ongi dakitenak. Lenengoak, bigaenak baño ugariazko izanik eliza beraren magalean bizi dira, eta auek dira beren eguneroko bizieran siñismenetik *bizi eñ diranak*, siñismenaren gogora ez dabiltenak.

Aztu egin dute nonbait egiazko siñismenak bi gauza, *siñismena ta eginbideak* aipatzten ditula; betiko Egiak dionez, auek (eginbideak) siñisten diren gauzen agiriko azalpide ta agerbidea izan bear dutela: *egiten dudanari siñistu, ez itzari*. Norberak duan siñismenaren erakustzale ta agertzalerik argiena bere biziera guzia da ta bere irea, gogo, ibilera, asmo, oitura ta izanera, guziak pilean ikusteak adirazten dute. Eta egiñala egiten dute uste izateko buruz Ebanjelioaren esanetan sendo iraun dezaketela, biotzez eta beren zentzuz kristau-legea oinperatu eta mundu usteldu ta usteltzale Jesukristo'k ainbat aldiz gogorki gaitzetsiaren esanai bildurik gabe jafaitzen (segitzen) dioten artean.

Ala gertatzen da eguneroko *jantziberi* edo moda galgafiakin. Auen bidez emakume—kristau ontzat beren buruak dauzkatena—batzuetan erakusten dute beren itxura zoragafia ta beste batzuetan guzien auean agertzen dituzte beren goi-beko nabarmenkeriak. Auxe gertatzen da *zine* galgafiakin ere; an erakusten dira giza-emakume lotsagabeak egindako ikusbide gaiztakeriz beteak, eta animak usteltzeko itxura ikuskafietan artuak; berauxe gertatzen da dantza itxura gaiztoko, galgafi edo gutxienez añas afiskutsu, erlijioak, oitura-onen legeak eta osasun-bideak batera debekatzen dituztenakin; auxe bera antzoki (teatrotako) ikusgafiakin ere: oietan maiz agertzen da onbidea (birtutea) oinperaturik, gaiztakeria goraturik, ifigafi (pañagafi) egiñik, pekataria goretsirik, giza loa (tzaña) txalo artean, giza garbia beraturik eta biziera ona bezturik. Berau gertatzen da liburu eta irakurgai ondagafi eta emakoikeriz beteakin: au da azkenean eñen pozoin kixkailgafi, gaiztakerien ongaritegiak astindu-ta gizataldeak kutsatzen dituana, ta lotsagabekeri aundiz, zikinkeriak agertaturik, oitura onak pozointzen dituana.

Oitura onen kaltezko lasaieriaz garbi itzegitea bear-beaitezkoa da (2) ta Jainkoak onez ala egingo dut ongi irudi zaitenean, baño batez ere, zuur-

(1) Non ponat lucem tenebras nec tenebras lucem; nec dicat malum bonum nec bonum malum.

(2) Stuart Mill'en esana gurea egiten degu: «On ne peut guérir les maux dont souffre la société, à moins de parler ouvertement.»

tzerizko gogo onez beterikako azkartasunaz *lana egiñen* dut. Eta ezin erdetxi ba'nu Nere eliztar maiteen zelai (plaza), etxe ta bizitzetara Nere lan osasungarria eramatea, zenbaitei egitez erakutsiko diegu beintzat, elizako santutasuna ta zenbait jantziera beñi afoen nabarmenkeria ezin batu ditezkenak dirala.

Utzirik, orain, siñismen santuan egonez eta bizitzako *beren guzietan* agindu aldakaitzai eusten ez diotenak, ¡Jaungoikoari eskefak! eztago gure kristau maletan siñismenaren ukatzale nabaririk: eztago, siñismen eta jakinduriaren artean itxurezko ezin-elkara-rturik ote liteken amets egiten duan iñor aipatzekorik; baño garbi itzegingo degula esan dizueten ezkeru, ezin estali det Iruña'ko «El Sindicato Católico Libre»ak beste gauza batzuei dagokienez afe ontan eman zidan uste gabeko mingafi, naigabez bete nindue-na. Ori izan zan aren bandera ta araudiko itzik eta azalbururik edefena oraintxe kendu dutela ikustean. Eta *Napaño ain kristauean* ezin siñesta liteken ofen ondorean, ontzat artu zuala, «Sindicato Libre»ak Iruñan azkeneko Ne-guilean (Abenduan) egin zuan Batzafeko *5-gaŕen azalpena*, ta ofen bidez Iruña'ko *Sindicatoak* itzeman zuala «lagunarteko bizierak bere ondasunik maiteen eta baŕenengoa bezala begiratzin duen *norberaren oiturezko eta erlijiozko iduritu edozein egiatzko begiramentu osoaz* ez ukitzea» lagunartetik landarako, *erlijiozko* iruditua norberaren gogora utzirik.

Apaiŕ eta beste gizon askok askatu nai izan duten, gaur sutan dagoan ezta-baida ontaz, nere lenengo Artzai-eskutitz ontan ezin itzegin ba'dizuet ere ain geldi, oar beafenezko batzuek egin nai dizkitzuet. Auek izango dira Nere Eliz-baŕutiko *Apaiŕ guztientzat* eta Elizaren eta beren Buruen eta Artzaŕien abotsa entzun naiko duten langile katolikoentzat beren zuzen-gai bezala.

Apaiŕak Eŕietan dituzten egin beaŕak: zer egiteko duten ziñez-aitorkuntza gabeko Langile-Bazkunetan.

Edozein Apaiŕ, gizonen artean aukeratua ta berezia izanik, berez eta beti, Jaungoikoari dagozkionetan gizonen alde lan egiteko jafia dago (1).

Argatik afa, Bataioaz zeru-gai egiñik, artzen du seaskan dagoneko ta ilefiko (kamposantuko) Gurutze bedeinkatuaren itzalpean jartzeraño ez du uztin. Argatik Jesukristo'ren asmoz, Apaiŕak izan bear du: bere ardantzear maitetasunez begiratzin duan—gogozko—*ardantzelarria*; egunaren eta be-roaren nekea, *gari garbia* biltzeagatik azkar deraman *nekazaria*; *animak* eskuratzeko lan egitetik gelditu bear ez duan *gudaria* (soldadu); itxas-ba-fenen ur-egiñez uren osin-beltzetan itotzeko zorian dabilzten gizonen *arantzalea*; esku-artekoen kontu zofotzena eman bear duen *Artaduna* (Adminis-tradorea); ardi galduak artegira itzultzeko aien bila ta aiek upatzeko mendi ta amide-giak baŕena laxterka ibili bear duan *Artzaia*; goiko ta beko, ja-kintsu ta ezjakin, aberats eta beartsuen *zorduna* (2).

Garai bakoitzeko izanera ta bizi-bidearen aŕiora zuzendu bear dalako

(1) Omnis namque Pontifex, ex hominibus assumptus, pro hominibus constituitur in iis quae sunt ad Deum. (Hebr. 5. 1.)

(2) Millet.

Apaizen lana, oraingo bufukaldien izanera berezia ezaguturik, ontzat ematen dugu: Apaizak etxetako, sutondoko predikalaria dan egunari katolikoa bere eliztaren artean zabaltzea; nekazarien begi-biotzean sartzeko Landa-Kutxak (Cajas Rurales) baratztea ta oiei eustea; guzien bitarteko, ikasle ta aita dan ezkeron ontzat ematen dugu batez ere efitar apal eta bekoena izatea ta XIII-garren Leon Aita Santuaren erakuspenai jaraituz (seguituz) *erriaren alde lan egitea*; erian biztu ta geitu beza alkartasun-gogoa, ez langilearen nekeak arintzeko bakarik, baizik afeta (ardura) guziz berofen barfengo ta soñeko ondasun legezkoak zaintzeko; baño ez dezala atzendu Apaizak, ofenbeste asmo ta gaurko bere eginkizuna ezin egin eta bete izango duala, berez eta gauza guzien gañetik eta bere oituraz artutako gogoz ezpalitz apaizgo santuak egin zuan gizaki berezi, *aldareko gizon*, Meza-Emalea... ofela ezpalitz, berez den baño txikigotzat idukiko du bere burua, ta haiz gizon ona, izpafingilari (periodista), izlari, aolkulari ta lagun ona izan, lanbide guzi oietan bere lana ta berak egiña gizonari utsik dagokiona izango da ta...; apaizaren lana ta berak egiñak jaungoikozkoak izan beaf dute. (1)

«Apaizak beti apaiz izan bear du» esan du zofotz Nere Malaga'ko Anai agurgari ta maiteak; eta lufeko gatza ta gizadiaren argia izanez bi lan oiek egitekoz eta efitalde eriak sendatu ta zeruratzekoz *beste Kristo bat, alter Christus* izan bear du ta ez sal-erosle ona edo saltzale trebea; bere apaizgogo, siñismenez, jaieraz (piedad) kristautasunaz, eta santutasunaz beterik efi erriaren zañetan zeruko indara ontasuna ixuri bear du.

Eta naiz ezagutu zerpait egi ba-diola esanera-zar aipatu onek: «urdail goseari ez Ebanjelioa erakutsi» eta alegia lagun-urko (projimoaren) gorpuzteko beafaz atzendu gabe zabaldu bear ditugula Salbatzailearen esanak; ala ere oker eta itxumen aundia da gizonai lufeko ondasunez *ase* arteraño *betiko biziltzaz* etzaiela itzein bear uste izatea; lufalde gurea bezin kristauetan langile-bazkun beren eginbide (araudi) ta banderetatik siñistezko ta katolikotasunezko azalburua kendu dutenai, Apaizak lagundu dezaiekela uste izatea oker eta itxumena dan bezala. Efialde aurkari ta siñiste-ausietan ba'geunde bezala egitea litzeke; siñisketa bereziak eta bata-besteen begiramentua bazkUNETATIK landara lasai uztea ta langileen bazkun beretan beren siñisketa bereziei ez begiratzea aietan ondo ibiltzeko ta geitzeko *egiaz on izan liteke*.

Aufeko sailtxo ontan diogunagatik, apaizai berez edo beste norpaiten bidez nere esanen kaltetan egin lezaketen lanetarako eskubidea kentzen diet eta Nere menpeko Apaiz guziei eskatzen diet beren eskua jartzen duten lan eta eginbide guzietan jainkoazko ezaunpide ta agerkari bikain-bikaña ezafirik uzteko; ori baita lufeko ondasun egiazko guzien sorpurua ta gizon guzien, aberats eta beartsuen, batu eta batu gabeen zorionaren iturburu agorkaitza.

Langile-Bazkunak eta aitorkuntza (Confesionalidad)

Esanik nago ustekabeko naigabea eman zidala Iruña'ko langileen *Sindicato Libre*'ak Neguileko Batzafean artu zuan asmoaz: Beren bazkun ori *aitorkuntza gabeko* agertu zalako. Gai ontara geran ezkeron nai dut jakitera

(1) Ugi Isoard. Demain, 276 oriald.

eman Napafoko langile katolikoak, beren siñiste katolikoak ezin dituztela utzi, ezta utzi bear ere, beren bazkunetako atarietan; eta beren bazkunak berez *katolikoak* izan bear dutela.

Batera nago zuekin Langileen Bazkun bat elizeko Alkartasun batekin ez nasteko; baita ere zuekin nago langintza-bazkun asmoak ez dirala lenengoz katolikotasun edo elizkoitasunezkoak ezagutzeko, baizik mota ortakoen asmoak, batutako langile guzien irabazbideak dirala; baño ez gaude eguneroko esanera zatar au artzeko: ostatuak eta arakindegia... ez katoliko ta ez protestante izaten diran bezala, bazkunak eta langileen alkartasunak ere berez ez dutela izan bear ez katoliko ta ez protestante, langileen bizitzarako lufeko ondasuna bilatzen dutela-ta.

Oker aundi baño aundiagoa da oraingo ezta-baidak lufekoari bakafik begiratzuz askatu nai izatea, gogo (animen) ondasunez eta gizadia ibili-azten duten gogorapenez afunt atzendurik. Argatik esan du gai auetan jakintsu aundia dan batek (1): «oraingo ezta-baida nasgafi au irabaziaren edo oituren aldeari bakafik begiratzuz askatu nai izatea, indar askoren lana indafik azkafena baztatu-ta iritxi nai izatea bezalatsu dala.»

Efien ezta-baidaren korapiloa askatzeko ezta aski geroztik langileen bazkun eta langintzetan katolikoak bakafik artzea. Bear da ortaz landara bazkunak bazkun bezala katolikoan legeak ontzat artzea, beren bilgurak Kristo'ren gogo-asmoz bizitzea ta zuzentasuna, egoki dana ta bata-besteaganako maitetasuna beren indafaren emaleak izatea. Bear da geroztik bazkunak katolikoak dirala aitortzeaz ez lotsatzea, erlijioaren bandera estaliz eta beren goragafirik bikañena dan *katolikoan* itz agurgafia kenduz.

Efien ezta-baidak ezin dezazke iñork legundu erlijiorik gabe. Eta lenengoz Le Play'ek eta gero Clemenceau eliz-itxizale aundi frantzitarak esan dute, kristau-legeak zuzen-zuzen beteko ba-lira, efietako ezta-baidak garbituak eta askatuak geldituko lirakela.

Baña oiek baño obeki ta eskubide geiagorekin, *sicut potestatem habens* (2), esan zuan X-gaŕen Pio Aita Santuak (3); «Efietako ezta-baida ta beragandik datozen korapiloak, lanaren izanera ta iraupenez, ordain-sariaz, noiz-naiko opofaldiaz eta, ez dira txurtu-naiari bakafik begiratzuz diotenak, ezta ere geroztik elizak dauken eskubideari begiratu gabe askatu ditezkenak; oso beste aldera egi aundia baita efien ezta-baida lenengoz oiturezko eta erlijiozkoa dala ta berofengatik oituren legeaz eta erlijioaren erabakiaz askatu bear dela batez ere.»

España'ko Kardenal Lenenkari guziz agurgafi ta goretsi, gure abefi katoliko ontako efien ezta-baida zuzentzeko eginkizuna daukanaren abots indartsu ta dezakena entzun da garbi ta zofotz, lefo auxek ezartzen ari nintzen garaiean ala ere: zuek eta nik gogo bilduakin entzun, eta gogo onez artu bear degu.

Onela idazten du Kardenal Lenenkariak: (4)

(1) A. Teodomiro Rodriguez, Agustindafak.

(2) Matt. VII. 2.

(3) Graves de communi.

(4) IV-gaŕen saŕa. La confesionalidad de la Obra. Artzai-eskutitz ori osorik emango det «Boletin»ean.

Langintzaen aitorkuntzaz

Garai ontan langileen bilgurai dagokienaz katolikoai itz egitean befiz Langintzaen aitorkuntzaz (1) aipatu beaŕik izango danik eziñezkoa dirudi. Asko naigabetu ninduen langile-bazkunak orain dela zenbait ilabete eliza eta erlijio gabekeriaren alde asi zuten lanak eta oraindik geiago ofen buruan Apaiz eta Praileen bat ageri ziralako. Lan ori zabaltzeak katolikoan maletan egi-ten zituen kalteaz oarturik, ikareria sartu zuan oietan eta neregana jo zuten zerpait egin nezan. Lengo urteko Ilbeltzaren 29'an nere agiria eman nuen. Asko poztu ninduten langile-bazkun nagusienetatik etofi zitzaizkidalako ne-re esanera zeudelako itzak. Aietako batzuek beren bazkunai *katolikoan* ize-na beŕiro jaŕi ere egin diote.

Ordun esana naiko zan elizgabekeriaren aldeko lana era bat utzi ba'litiz; baño oso etsirik eztela ofela, beŕiro itzegitera bearturik nago ta beartuko naute neufi gogofak artzera ta nastzaŕen izenak jakitera ematera, beren go-gorkerian iraun nai ba'lute.

Eŕien ezta-baidaen Aita Santu aundiaren esanetan bi gauza nabari dira batez ere langilen bilgurai dagokienetan: auk *«paketsuak»* eta *«erlijio-za-leak»* izatea nai du bere izaneran. Berak maiz dio bilgura auk bilatu bear duten lenengo gauza erlijioaren eta oitura onen ikasbidetan batuak ongi jar-tzea dala. *«Alkartasun auen ondasun-bidea* batez ere asmo-buru onek zuzen-du bear du» dio.

Pavissich Aitak, erlijio gabekeri zaleen agoan onako itz-bide au jartzen du: kristau-lege ta Socialistaen bileraen artean bada zerpait ohea ta ofako zuen itzontzikeriaz alpeŕik izkutatu nai diguzuten irugaŕen motako bazkun oiek dira. Ofako bazkun apaizartetik eta socialistaartetik ere bereixten di-ran bazkun siñes-gabe oietaz esaten dut; langintzako irabazpideaz, beste er-lijiozko edo politikazko asmorik gabe, lan egiteko ta langileari laguntzeko diranaz. Ori da bizi-mala guzietakoak baturik langile onen irabazpiderako alkartasun egiazko guk bear deguna, sozialismoaren ondatzale egiazkoa.

Aspalditako lelo ori jotzen digute gure siñis-gabe zaleak. Ta irudi zaiot-e ainbateko giza-oztea (pila) bildu bear zaiotela deiera. Baño len esandako idazle (liburu-gile) berak erantzuten du: Ori uste duana bi aldiz itxua da, ta ori gure aundizki sail geientsuarekin eta eŕi-beko liberal edo liberal-tzalea-kin. Bere aŕfean dauken giza-oztea ta ori mugiazten duten iritzi (asmo-ame-tsak) ikusten ez ditulako. Ez al dezute ikusten eŕiari ta batez ere gazteri, eŕietako gertaeraz oartzeko gauza den ofi, ezta-baida auetan sartu beaŕa da-torkioneko edo sozialisten eŕeka bera dijoala edo erlijioaren maitetasunak eragiñik, katolikoan bazkunai izena emanik, aien (socialisten) kaltez lan egi-ten duala? Ez alde bateko ez besteko oiek eŕiaren begietan ezerezak, jaun-txoak, andikotzak, ala-olakoak edo ez ur eta ez ardo dira ta argatik etzaiz-kio sartzen.

Eta gero ere jotzen dio ezertarako ez dan *neutralidad* edo siñisgabe za-lekeri zatar, ezin ditekene ikasbide ofi. Ederki esan du ortaz Vermeersch Ai-

(1) Langintzaen aitorkuntzaz esan nai da langile-bazkunetakoak duten siñismena ai-tortzeaz. (Itzultzaŕeak.)

tak izatearen kaltezko indarketa, zapuzkeri aldia, erlijioaren kaltezko atzeraldi, ta eñiari dagokionaz afixkutsu ta alpefikakoa deitu duanean.

Gai ofen erabiliaz ez dut geiagoko itzik edo beragafirik aipatuko lengo nere agiri artan ezafi nituan-eta. Ala ere gure efiko idazle langile, garaiez eta gizarteko gai jakinduriz lenengotakoa den baten esanaz akitu nai dut, «Ez ezker-ez eskuin izateak Italia'n bere ezta-baida galdu du—dio—1909'ko azken aldean X-gaŕen Pio Santuak «Unión económico-social» bazkunari bializión eskutitz (karta) ezkeroz eta España'n ere galdu du bere ezta-baida 1910'ean Toledo'ko Kardenal Artzobispoak «Normas de la Acción Social» deituak eman ezkerok.» Eta onako egia ontaz akitzen du: «Gaur katolikoak ezin dezaket, aginduaren kalte joan gabe, berak sortutako langintzetan ez-ezkef ez-eskuin egoteko lan egin.» (1)

Oraingo laritasunaren aurrean dauzkadan eginkizun eta erantzun-beaŕak

Ikaragafizko laritasunean arkitzen da España, seme maiteak, eta gutxitan bezalako ondoreak datozkiokela. 1923'ko Azaroaren 3'an idatzi nuen; «Bidez negar egiten zuten, gure politikako oituretan sarturik zegoen saldukeri izugafia naigabeturik ikusten zuten España'r onak, efi guziko bizibide ta bizimaña guziak zikintzeko bildufa ematen zulako. Eta abefitar zintzoak aurfetik usmatzen zituzten egun ilun eta ondamen ikaragafiak, ustelkerizko ta lasaikerizko uin-olatua gora ta gora zijoalako. Guziok ikusten gendun gaitzari eusteko indafik gabeko nagusitasun zartatua lufera botatzeko zorian zetofela, ortaz oartzen bai-ziran bular-biotz onak eta bafen-garbi guziak.» «Irudi du, ala ere, Jaungoikoa efukitu dela gure España katolikoaz, ortarako gizon bulardetsu biotz aundiko ta gogo zuzenezko batzuek aukeratuz. Auek beren gain artu dute ardura goragafiaz gure abefi maitagafia befitzeko asmo zail eta neketsua, ondamenkeri ta burugabekeriari, gaiztakeri ta lasaikeriari, loikeri ta bidegabekeriari itufiak ixteko ta len-lengo bide, gure abefiaren egunik oberenetan egiazko askatasuna, oitura onak, zuzentasun eta ontasuna, biziera ona ta pakea ibiltzen ziran bidea befitzeko asmotan.»

Eta eransten nuen: «Baño onen lan azkar eta asmo bikañak gu guzioi eskatzen digu, seme maiteak, España'ren anditasun egiazkoa ezertan dauketen guziei eskatzen dien bezala, ziñezko ta egiazko laguntza, ez gizarteko lan-bideari dagokionetan bakafik, baizik erlijioari dagokionetan batez ere.»

Utzi ditzagun, geroztik, alde batera gizonen kaltez beti ateratzen diran espak, geren bafengo gaitzari begira dezaiozun eta geren buruak ontzeko daukagun egin-bide lafiari, eta era bat siñistu dezagun, efien beraldia lenengoz norberak bere burua bakafik ontzeko lana ez egitetik datoŕela.

Gauza baten zati (pusketak) bildu gabe gauza ori osotu nai izatean baño oker aundiagoa egiñen giñuke, nere eliztar maiteak, gizadi (efidi) zoriontsu, doatsu, on-ona, giza txar gaiztoaz egin ñai ba'gendu: izer zalantza izan dezakezu abefiaren ontasuna, abefitar guzien ontasunaz ta efiaren ontasuna efitar guzien ontasunaz osotua izanen dela siñisteko?

(1) Ciencia y Acción'en Zuzendariaren oara. Estudios Sociales 254 ofiald.

Argatik oraingo estualdian batez ere España'ri ta Napafoari *egin de-
zaiokegun eskein-gayik* edefena **eritar on eta santu bat** ematea izanen
da. Nor bera ezertarako gauza eztana ta eria itzultzen duen loikerira jar-
tzea egin dezakiokegun gaitzik aundiena izanen litzek bezela; ofela gero
gizartea ere soñetik eta bañendik gaizkiturik utziko luke-ta.

Izan gaitezen santuak Gotzai (Obispoak), izan bifez Apaiz eta praileak
txukun, garbi, txau eta langileak; Monjak gartsu ta neke-zaleak; apaizgaiak
leyalak beren dei santuan; Zuzenburu ta epaileak, zuzen, zintzoak; gudarien
ezpata dirdiratsuak erlijioaren eta efiaren bañengo ta gorputzeko ondasunak
zaindu bitza, ager bedi non-nai gizon zuzenen berdintasuna, neufidunen
sendotasuna, giza-garbiaren neufi ona, senar-emazteen zintasuna, alargunen
Jaunmaitasuna, neskaten garbitasun itzalik gabea, ikastetxetan irakaste ka-
tolikoaren argia, onbide itxuroneko ta apalen soiltasuna, egiaz eder eta mai-
tagafi den guziaren zuzentasuna, langile prestu eta kristauaren nekaldi go-
gatsua ta ogibidedunaren (kargudunaren) lan zuzena... eta abefiari diogun mai-
tetasuna agirian utziko dugu ta gure eginkizuna beterik geldituko da.

Ori eñazago betetzeko, Nik, seme maiteak, eskeintzen dizuet nere egu-
neroko otoitz eta Mementoen laguntza; ta uste osoan nago neri ere, Nere se-
me maiteen otoitz, Jaunartze, meza, ta lan onen bitartez zerutik etofiko zai-
dala laguntza, batez ere gure Eliz-buruko Apaizteriarren, apaiz jaunen, gaien
eta Praile-Monja guzien otoitzen bitartez, baita ere neskato-mutikoen ikas-
toki katolikoetan, Irugarren Ordenetan, Alkartasun eta Senidedietan, Misio-
Bilguretan egingo diren eta gure Eliz-bafulian dauden kristau guzien otoi-
tzez.

Baño elkarñen onez egingo dugun otoitz kartsuak Jaungoikoaren Bio-
tzean afera ona izan dezan eta eragin dezaion, Aralar'ko Goiaingeru Migel
santuaren, Saturnino santuaren, Fermin santuaren, Xabier santuaren, Bere-
mundo santuaren, Loyola'r Ignazio Santuaren, Ama-Birjiña Sagrario'ko ta
Kamio'koaren belafi efukitsuetan adi-azi ondoan zuzendu dezagun Jaun-
goiko ta gizon egiazko Jesukristo'ren Biotz guziz gorenera.

Atsegin biaz Napafo'ko Aldundiaren Jauregi bikañean, Uri-buru onta-
ko uri-etxeko geletan eta beste zuen jauregi ta etxe askotan jaureskundera
(entronizazioa) eginik ikusi dut: nik ba-dakit Biotz guziz santuaren maite-
tasuna ta ontasuna darion iduri agurgafia non-nai zabaltzen ari dala gero ta
jaiera ta ongi-nai sutsugoakin; nik ba-dakit Jesus'en dei gozo-gozo: *guziok
Nigana etori* (1) dionak, lur bedeinkatu ontan giza-pilak Salbatzalearen
ingurura ekafi-azi ditula; ta Arengandik erdixten deztela sukaldetarako pa-
kea, neketarako arintasuna, egin-bide guzitarako zeruko bedeinkapena ta
naigabetarako gozapena... bizitza guziko gerizua (babesa) ta batez ere eriotz
ordurako; ortaz landara ba-dakit zuen etxetako ixilean eta txokoan ematen
dizuten maitetasunezko, jaiera (deboziozko) agufaldiaz gañera, efi guzia-
ren afean, katolikoen elizetako elizkizunetan non-nai goratua ta agur egi-
ten zaiona izan bear lukela aitortzen deztela lufeko guzien afean eta zuen
uriko plaza, zelai, kafikak bañena jiran eramaten deztela..... eta ea ba, ¿ezin
egin al ziñezakete Jesus'en Biotz guziz Gorenari diozuten maitetasuna agi-
rian jartzeko zerpait geiago? Gure uri au, edestizko (aspalditako) mugak

(1) Math. XI, 28.

ausirik, aunditzen eta zabaltzen ari dan ezker bide bikain eta etxe ederakin; çzer, amets egitea edo geiegi eskatzea ta erdixtea izanen al da or goratzen dezuten etxadi edo kafikarik ederénari Jesus'en Biotzaren kafika deitzea?

Gañez egiñen duen atsegin berdin gabea izanen da Nerea, baldin Nere semeen bārenbeak Jesus'en Biotz guziz santuaren onginai (jaieraren) seluaz bereganatuak izanez gañera, gure efiko jauregi ta kafika oberenak, efi guzien Erakusle, Sendalari ta Salbatzailearen izen agurgafiaz ederturik ikusiko ba'nitu. Egin dezaken afek egin bezait; leia bitez Nere seme guziak Jesukristo maitatzen, onela zeruko onespen (bedeinkaziorik) ugarienak guganatzeko, Nik nere eskuak Nere Eliz-bafutiko guziok maitetasunik egiazkoenaz bedeinkatzeko jasotzen ditut Aita Jaungoiko † ta bere Seme Jaungoiko † eta Espiritu Santu Jaungoikoaren Izenean †. *Amen.*

Iruña'ko Nere Jauregian Epaila'ren 7'an—Aquino'tar Tomas deunaren Jaiean—1924'e an.

✠ MATEO, Iruña'ko Gotzaia

Gotzai guziz agurgari nere Jaunaren aginduz

LUIS GOÑI URRUTIA, J.^a

Ikast-irakasle-Idazlaria.

